

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresa aurrera joan dadin, hainbat **baliabide fisikoen, intelektualen...** beharra nahitaezkoa izango da. Lehenik eta behin, baliabide fisikoek berebiziko funtzio bat betetzen dute. **Bulegoa** eta bertako **altzariak** eguneroko jarduerak modu eraginkorrean antolatzen aukera ematen dute, eta ordenagailuak eta bestelako baliabide teknologikoak aplikazioa **garatu** eta **mantentzeko** beharrezkoak dira. Gainera, gure bulegoa Portugaleten kokatuta egongo da; izan ere, lankide baten familiaren lokala da.

Bestalde, **baliabide intelektualen** laguntza ere izango dugu, informazioaren **kudeaketa** eta **ezagutzarekin** laguntzen baitute. Bezeroen **datu-baseak**, esate baterako, erabiltzailearen beharrei **modu pertsonalizatuan** erantzuteko eta merkatuaren joerak aztertzeke erabiliko ditugu, eta horrek aplikazioaren **kalitatea** eta **efizientzia** handitzen du.

Hortaz aparte, **giza baliabideak** ezinbestekoak dira proiektuaren garapenean. **Programazioari** dagokionez, adituek aplikazioaren funtzio guztiak garatzen eta mantentzen dituzte eta **eduki sortaileak**, berriz, app-ari buruzko edukia sortzen dute erabiltzailearentzat erakargarria eta erabilgarria izan dezan. **Lan-harremanak zaindu** eta koordinatzea ere garrantzitsua da, taldearen motibazioa eta produktibitatea bermatzeko, eta ondorioz proiektuaren hedapena sustatzeko.

Azkenik, **finantza baliabideek** enpresa martxan jartzea eta funtzionatzea bermatzen dute. Hasierako ekarpenek, **3.000€-ko** ekarpena **bost pertsonatik bakoitzak** eginda, **15.000€-ko oinarri ekonomikoa eskaintzen dute**, eta horri aplikazioaren instalazioetatik eta sarreraren komisioetatik lortzen den dirua gehitzen zaio. Gainera, beste negozioei **publizitatea** eginez finantza iturri osagarriak lortuko dira, proiektuaren finantza sustatzen. Bestalde, **Getxoko Udalak** gehienez gastuen **%80ko diru laguntzak** eskaintzen ditu, 25.000€ gehienez eta 7.500€ gutxienez lortzeko aukerarekin. Diru hau **itzuli beharrik gabeko dirua** da, baina gastuekin justifikatu behar da. Finantza baliabideekin bukatzeko, **8.000€-ko mailegua** eskatuko diogu bankuari, guk diru-ekarpenekin ere lagunduko baitugu. Aukeratu dugun bankua **Caixabank** da, **6 urte** ditugulako **dirua bueltatzeko** eta gure beharrak hobeetan asetzen dituen delako. Hortaz, **133,3€** ordaindu beharko ditugu **hilean 5 urtetan zehar** zorra bueltatzeko; izan ere, ez dugu 6 urteko mugara luzatu nahi. [Mailegua Caixabank](#)

Ondorioz, gure funtsezko baliabideek fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantza baliabideak barne hartzen dituzte, eta guztiak elkarrekin jarduten dute enpresa **arrakastatsua izatea bermatzeko** eta **erabiltzaileari esperientzia osoa eta erabilgarria eskaintzeko**.



Argazkia adimen artifizialarekin eginda dago